

ETXARRIKO INKESTA SOZIOLINGUISTIKOA 2017


Etxarriarren %75 euskalduna da eta % 90-k ongi ulertzen du. Etxean euskara bakarrik zabaldu eta erabiltzeko beharrezko joera dago.

Maialen Ijurren euskal filologia ikasleak Etxarriko Inkesta Soziolinguistikoa egin du ikasketen praktika moduan. Inkesta soziolinguistikoak 16 urte edo gehiagoko etxarriarrak hartu ditu kontuan. Denera, 326 herritarrei egin zaie inkesta telefonoz. Galdeketak 2017ko otsailean egin ziren eta orain emaitzak aurkeztu dira. Lana UEMAK koordinatu ditu, Udalarekin batera.

Inkestak euskarak Etxarrin duen egoera eguneratzen lagunduko du, 2001etik ez baikeuen horrelako daturik. Datu horiek beharrezkoak dira euskara sustatzeko neurri egokiak hartzeko.

Heldu euskaldun gehiago

Etxarriko Inkesta Soziolinguistikoaren arabera, 16 urte eta gehiagoko etxarriarren %74,85 euskalduna da (euskara ongi ulertu eta hitz egin), %15,95 ia-euskalduna (euskara ongi ulertu, baina zailtasunez hitz egin) eta %9,2 erdalduna. Adin tarte guztietan gehiengo euskalduna da, baina azpimarratzekoa da 34 urtez azpikoetan %90etik gora euskaldunak direla.




2001eko erroldatik ez da aldaketa esanguratsurik egon euskaldunen tasan (%77,55etik %74,85era), baina datuak adinaren arabera aztertuta, euskaldunen ezaugarriak aldatu direla esan daiteke: 2001ean euskaldun tasa handietan 24 urtez azpikoek eta 65etik gorakoek zuten (-14 urte: %87,90; 15-24: %88,01; +65: %81,97). 2017an, berriz, 49tik beherakoek (16-24: %90,30; 25-34: %93,18 eta 35-49: %81,61). Beraz, erdiko adin tartetan (25-49 urte) euskaldunen tasak gorako joera nabarmena du. Adin tarte horietan irabaziak izatea garrantzitsua da euskararen osasunarendako (gurasoak, langileak...).

Hala ere, gaitasun erlatiboa asko jaisten da erdiko adin tarte horretan: 34 urtez beherakoetan gehienak (%50etik gora) euskaraz moldatzen dira hobeki, baina adina igo ahala, bi hizkuntzetan ongi eta gaztelaniaz hobeki moldatzen direnen tasa igotzen da. Euskara gaitasun erlatibo txikiena 50-64 urtekoek dute: %13,33 hobeki euskaraz, %51,11 bietan eta %35,56 gaztelaniaz hobeki.

Etxean bi hizkuntzen erabilera igo


Haurtzaroko lehen hizkuntzagatik galdetuta, 16 urte edo gehiagoko etxarriarren %73,93k dio euskara etxean jaso duela, baina askok gaztelaniarekin batera jaso dute euskara (%52,15-k euskara soilik eta %21,78k euskara eta gaztelania).



2001etik beherako joera handia dago euskara bakarrik jaso dutenen artean (ia 20 puntu gutxiago: 2001ean euskara bakarrik %70,74 eta 2017an %52,15) eta gero eta gehiago dira euskara eta gaztelania jasotzen dutenak (15 puntu gora: 2001ean %7,63 biak; 2017an %21,78).

Galdera berdina bi gurasoak euskaldunak dituztenei egin zaie. 16 urte edo gorakoek %61,96k dituzte bi gurasoak euskaldunak, baina horietan ere ez dago bermatuta euskara bakarrik jasotzea: %81,62k jaso du euskara bakarrik, %14,90ek euskara eta gaztelania eta %3,48k gaztelania bakarrik.

Etxeko erabileran ere beherako joera dago (10 puntu behera): 2017an 16 urte eta gorako Etxarriko euskaldunen %49,99k euskaraz egiten du beti edo gehienetan. 2001ean, berriz, %61,12k euskaraz egiten zuten.



Etxarriko hizkera

Etxarriko hizkeragatik galdetuta, 16 urte edo gorako Etxarriko euskaldun eta ia-euskaldunen %74,66k badaki herriko hizkera, %16,89k zertxobait eta %8,45ak ez daki. Adin tarte guztietan nabarmen nagusitzen da baiezkoa, gehienbat 34 urtez beherakoetan.

Hala ere, euskaldun eta ia-euskaldunen %41,89k euskalkia galtzen ari dela uste du. %40,88 ezezkoan dago eta %17,23k ez du erantzun.

Euskara sustatzearen alde

16 urte edo goragoko etxarriarren %76,99ren iritziz egokia da udalak euskara sustatzeko egin duen lana. Bestalde, %85,9 konforme dago administrazioan sartzeko euskara jakitea beharrezko izatearekin.

Hain zuzen, badirudi azken urtetan administrazioan euskararen erabilera sustatzeko egindako lanak eragina izan duela. Izan ere, administrazioako erabilera aitortua eremu informaletan (lagunartean, lankideekin...) baino altuagoa da (eremu informaletan, %50 batez beste, eta eremu formalean %65). Badirudi herritarrek guneeuska moduan identifikatzen dutela administrazioa.

GURASOAK EREDU

Etxarriko Euskara Batzordeak etxeko hizkuntza ohituretan eragin nahi du. Izan ere, Inkesta Soziolinguistikoak agerian utzi du Etxarrin gero eta familia gutxiago direla euskara bakarrik zabaldu eta erabiltzen dutenak eta, alderantziz, etxean bi hizkuntzak erabili eta transmititzeko joera igo dela.

Etxea da hizkuntza transmititzeko bide naturalena eta eraginkorrena. Horregatik, oso garrantzitsua da guraso euskaldunek seme-alabei jaiotzen direnetik euskaraz egitea. Hitz egin eta gozatu euskaraz: ipuinak irakurri, euskarazko marrazkiak ikusi (Interneten eskaintza zabala), euskarazko kultur eta kirol ekitaldiak eskaini... Euskara ez dakiten gurasoek ere badute zeregina, euskararekin interesa azalduz, abestiak ikasiz...

Euskara Batzordeak gaia landu nahi du gurasoekin. Haurrek imitazioz ikasten dute. Horregatik, ahal den guztietan erabili euskara etxean eta etxetik kanpo.